



Alkoholik Gabeko Munduko Egunean, kontsumoaren gorakada nabarmentzen du AGIPADek, adikzioengatik tratamendua jasotzen dutenen artean.

Emakumeetan ematen da gorakadarik nabarmenena, %30eko gorakada aurten alkoholaren adikzioarengatik AGIPADen tratatuak izan diren emakumeak, gizonezkoen kopurua aldiz antzeko zenbakietan mantentzen da.

Alkohola da gehien kontsumitzen den substantzia kokainarekin eta kanabisarekin batera,, azken honek gorakada esanguratsua egin du tratamenduetan.

40 urte gorakoak dira alkoholaren adikzioarengatik tratamendua jasotzen dutenak, bai emakumeak bai gizonezkoak, 15 urte baino gehiagoz kontsumitu dutenak.

Bihar, osteguna, urtero bezala azaroak 15ean, “Alkoholik gabeko Munduko Eguna ospatzen da”. Egun berezi honetan substantzia eta Gipuzkoan egiten den kontsumoaren aurrean hausnarketa egin nahi du AGIPADek. **Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentziorako Gipuzkoar Elkarte**an alkoholaren adikzioa dutenen tratamenduen igoera egiaztatzen dugu, gure urteko txostenean artatzen ditugun pertsonen datuak adierazten dutenez.

Urte honetan, orain arte, alkoholaren adikzioarengatik tratamendua jasotzen dutenen emakumeen kopuruak %30eko gorakada egin du, iazko datuekin konparatuz. Artatuak diren gizonezkoen kopurua berriz, iazko zenbakietan mantentzen da.

Droga motak aztertuz, alkohola hirugarren postuan dago. Kokaina eta kanabisak bakarrik gairatzen dute, azken honek gainera gorakada esanguratsua egin du bai gizonezkoetan bai emakumetan.

Kontsumoaren adinean berriz bi sexuak paretsu daude, 40 urtetik gainean kokatzen da portzentai altuena, gizonezko eta emakumetan, eta 15 urte baino gehiago daramatzate substantzia kontsumitzen.

Gutzizko zenbatekoetan, alkoholaren kontsumoa ohargarriki areagotu da 18 eta 22 urte bitarteko gazteetan, hala ere, kontsumoaren hasierako adina geratuta dago, duela bost urte baino gehiagotik.

**DROGEN ABUSUAREN IKERKETA ETA PREBENTZIORAKO GIPUZKOAR ELKARTEA
ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INVESTIGACIÓN Y PREVENCIÓN DEL ABUSO DE LAS DROGAS**

Javier de Barkaiztegi, 23. 20010 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)

T: 943 47 38 64 – F: 943 47 38 66

www.agipad.org – agipad@agipad.org

-ONURA PUBLIKOKOA DEKLARATUA – DECLARADA DE UTILIDAD PÚBLICA

GIPUZKOA GIZA ESKUBIDEAK SARIA 2005 – PREMIO GIPUZKOA GIZA ESKUBIDEAK 2005



Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako programa espezifikoa

AGIPADek urte asko darama, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesari esker, tratamendu zerbitzua eskaintzen, modu ambulatorioan gizarteratze psikosoziala lortzeko, ohiko inguruan egiten dena.

Zerbitzu honek era askotariko biztanleriaren eskaeretara egokitzen den arreta psikoterapeuta eskaintzen du, adinaren arabera, bizi estiloak...tratamendu biopsikosozialekin eta era askotako esku-hartzeekin erantzuten die alkoholaren kontsumoak dakartzan arazoei, kontsumo arazotsuak eta mendekotasuna.

Zerbitzu honen helburua alkoholaren kontsumoari lotzen zaizkion arazoak dituzten pertsonen arreta psikosoziala eskaintzea da, psikoterapia pertsonalizatuak eskainiz abstinentzia edo arrisku gutxiago duten kontsumoak egiteko, bizi estiloak hobetzeko, bizikalitatea eta gizarte-familiarteko erlaziozko prozesu onak lortzeko, elkarrekiko egokiera bilakatzeko.

Alkoholaren kontsumo arazotsua egiten duten pertsonak: nerabeak, helduak...baita inguruko pertsonak ere, senitartekoak edo hurbileko pertsonak eta hainbat arrazoiengatik hauekin harremana duten profesionalak ere, guztiek dute lekua gure zerbitzu honetan.

Prentsako kontaktua

Informazio zabalagoa nahi izan ezker, prensa@comunicamelo.es helbidera idatzi edo 609491422 (Martín) zenbakira deitu